

## ***Cristóbal Balenciaga museora etorri diren bisitarien kopurua % 13 hazi da 2016an***

**Getaria, 2016ko abenduaren 22a.**- Cristóbal Balenciaga Museoa, bere bosgarren urteurreneko ekitaldian, 45.000 bisitari izan ditu museoaren Getariako egoitzan, iaz baino % 13 gehiago.

Igoera horrez gain, nabarmentzekoak dira museoko hezkuntza-programaren erabiltzaileen kopuruaren hazkundera (% 17,5eko igoera) eta bisiten banaketa uniformeagoa urtean zehar, udazkeneko eta udaberriko hilabeteetako bisiten pisu erlatiboa handitu egin denez, udakoen aldean.

Bisitariaren jatorriari dagokionez, datuen arabera, atzerritarrak dira bisitarien zati handi bat (guztizkoaren % 46). Azken urteetan gora egin du kopuru horrek, bereziki bisitari frantsesenak (bisitarien % 23,5), estatubatuarrenak (bisitarien % 4), ingelesak eta alemanenak (% 2,7 eta % 2,5, hurrenez hurren).

Euskadiko bisitariak % 22 izan dira (gipuzkoarrak % 12, bizkaitarrak % 7 eta arabarrak % 3), eta gainerako erkidegoetatik etorri da bisitari guztien % 32. Jatorri-erkidegoari erreparatuz, Madril (bisitarien % 8,5), Katalunia (% 5), Nafarroa (% 4) eta Valentzia (% 2,8) gailentzen dira.

### **Asmo handiko programazioa 5. urteurrenaren ospakizunetarako**

Urteurrena ospatu duguneko urte honetan, Cristóbal Balenciaga museoa asmo handiko programazio bat eskaini du, tradizioa berrikuntzaren eta sormenaren iturri izatea ardatz hartuta.

Hala, La Cité internationale de la Mode et la Dentelle de Calais delakoarekin batera ekoitziriko «Balenciaga, parpailaren bidez» erakusketak (martxoaren 18tik irailaren 18ra) Balenciagaren maisutza azaldu zuen parpaila bezain ehun tradizional eta identitarioak erabiltzerakoan, baita aukera berritzaileak sortzeko ehun horri eman zizkion erabilera eta formula berriak ere.

Urteko bigarren erakusketa handiak (urriaren 6tik 2017ko maiatzaren 5era) aukera eman zuen Balenciagak bere goi-mailako jostuntzako sorkariekin herri-janzkeran eragindako eguneratze estetiko eta Ortiz de Echagüek argazki-erretiratuekin osatutako Espainia tradizionalaren ikuspegi artistiko-dokumentala ezagutzeko.

Bi erakusketak DSS2016ren «Elkarrizketak» programaren parte izan dira, eta konferentziekin, ikastaroekin eta jarduerekin osatu dira, testuinguru aberatsagoa sortzeko iritziei eta ikuspuntuei dagokienez, ikuspegi historikotik, garaikidetik, eta etorkizunari begira.

## **Lankidetzak eta egindako maileguak**

Atlantikoaren beste aldeko lurak izan dira museoaren kanpoko presentziaren agertoki nagusia. Mexikoko bi museo garrantzitsurekin aritu da lankidetzan: Mexikoko Arte Modernoko museoan antolatu den «Balenciaga» erakusketak 120.000 bisitari izan ditu, eta Mexikoko Guadalajarako Arte museoarekin ere lan egin da. Bestalde, museoko pieza batzuk izan dira New Yorkeko Metropolitan museoko jantziaren institutuak antolatutako «Manus x Machina» erakusketan.

Miren Vives museoko zuzendariak urtearen balorazio positiboa egin du: «Ez bakarrik museora hurbildu diren bisitarien kopuruarengatik bakarrik; datu garrantzitsua da, baina ez neurtzen dugun bakarra. Beste adierazle batzuk ere oso onak izan dira: bisitari buruzko iritzi orokorra, museoko batez besteko egonaldia edo edukiekin ikasitako ezagutzak. Horrez gain, programazioari esker, gure helburu estrategikoetako bat lortzen ari gara, nazioartean dugun presentzia eta eragina hobetu baititugu.»

Museoak 1.689.000 euroko guztizko aurrekontu estimatua izango du 2017ko ekitaldian. Azpimarratu behar da Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpena handitu egin dela, eta, hala, Eusko Jaurlaritzak 2015etik hona egin duenarekin parekatu, eta museoaren autofinantzaketa-maila, aurrekontuaren % 29raino hazi dela.

***Museoak programazioa 2017ko urtarrilean aurkeztuko du. Urte horretan beteko dira ehun urte Balenciagak Donostian bere lehen lantegia zabaldu zuenetik, eta 80 urte Parisera joan zenetik.***

**Abenduaren 31rako, museoaren 5. urteurreneko azken ekitaldi gisa, ateak zabalteko eguna antolatu dugu eta sarrera doakoa izango da.**

**GABONETAKOORDUTEGIA - Abenduaren 26tik 31ra bitartean, Cristóbal Balenciaga Museoak bere ordutegia zabaldu eta bere ateak egunero irekiko ditu (baita astelehenean, abenduak 26, ere), 10:00etatik 17:00etara.**

## **Cristóbal Balenciaga Museoa**

Cristóbal Balenciaga Museoa 2011ko ekainaren 7an inauguratu zuten Getarian, eta moda-sortzaile bati oso-osorik eskainitako munduko lehen museo handia da. Haren helburua hauxe da: Cristóbal Balenciagak sorkuntza artistikoan oro har eta, bereziki, modaren eta goi-mailako jostuntzaren munduan egindako lana ezagutaraztea eta nabarmentzea.

Museoak Cristóbal Balenciagaren nazioarteko sorkari-bilkura garrantzitsuena gordetzen du, bai osatzen duten piezen kopuru eta kalitateagatik, bai haren hedapen kronologiko handiagatik.

Museoko espazioetan, bildumetako pieza hautatuak erakustez gain, modari lotutako aldi baterako erakusketak eta hezkuntza zein aisialdiko jarduerak ere proposatzen dira.

### **Informazio gehiago:**

#### **Cristóbal Balenciaga Museoko prentsa-bulegoa**

Zuriñe Abasolo

@. [zurine.abasolo@fbalenciaga.com](mailto:zurine.abasolo@fbalenciaga.com)

T. 943 00 47 77 – 647 410 775

#### **Cristóbal Balenciaga Museoa**

[www.cristobalbalenciagamuseoa.com](http://www.cristobalbalenciagamuseoa.com)

Tel. 943 00 88 40

@. [info@cristobalbalenciagamuseoa.com](mailto:info@cristobalbalenciagamuseoa.com)